

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza ^{info}

Asteazkena, 2011ko uztailaren 20a. VIII. urtea. 2.260. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Getaria-Tolosa trainerua, garaipenaren gainean arraunean

Gipuzkoako eta Euskotren Ligako estropada guztiak irabazi dituzte aurtengo denboraldian; Gipuzkoako txapela ere jantzi berri dute ◦5



Getaria-Tolosako trainerua. HITZA

Erromerian euskara dantzan jarriko dute

Villabonako jaietarako, larunbaterako, Erromeria Eguna antolatu du Oinkari dantza taldeak, herriko eragile gastronomikoen laguntzarekin; euskararen aldeko topa egingo dute Porrotx pailazoarekin ◦4



LURZU

→ **Mugarik gabeko ginkana.** Tolosako eta Saharako haurrek arratsalde ederra igaro zuten atzo Tolosako Berdura plazan. Udaleko Nura kale hezitzaileen taldeak ginkana antolatu zuen, nahiz eta hasieran Plaza Berrian egitekoak izan. Eguraldiak ordea, estalpera eraman zituen jolasteko gogoz zeuden haurrak. ◦2



FUNERARIA
VASCONGADA
EHORZKETAK

Larrea Poligonoa 34 - 1
www.funerariavascongada.com



Gertu...

VILLABONAKO
HILETA ZERBITZUAK
BEILATOKI BULABEA

24 H..

943 694 873



Gaztetxoek hainbat froga gainditu behar izan zituzten. I. URKIZU

Tolosako eta Saharako gaztetxoak batera aritu dira ginkanan jolasean

Tolosako Udaleko Nura kale hezitzaileen taldeak antolatu zuen ginkana, haur tolosar eta sahararrekin

Itzea Urkizu Tolosa

Eguraldiak hala behartuta, Berdura plazan bildu ziren atzo, haur eta gaztetxo tolosar nahiz sahararrek ginkanan parte hartzeko.

Tolosako Udaleko Nura kale hezitzaile taldeak antolatu zuen jokoa, eta bertaratu ziren haur gehienak sahararrek izan ziren.

Iragarki laburrak

GALDUTAKOAK

■ **Diru zorroa.** Diru zorro bat aurkitu dute Amezetan. Galdu duenak dei dezala 615 97 95 66 telefono zenbakira (Kontxu).

Arratsaldeko 16:30ak inguruan hasi ziren hezitzaileak haur eta gaztetxoak antolatzen, eta besteak beste, ginkanan parte hartzeko binaka banatu zituzten, bikote bakoitza orkatiletik soka batekin lotuz.

Guztira hamazazpi bat gaztetxok parte hartu zuten, eta ginkana Plaza Berrian egitea aurreikusita zegoen arren, Berdura plazan burutu zuten azkenean. Modu honetara, gaztetxoek hainbat froga gainditu behar izan zituzten, postu desberdinetatik pasatuz. Batean, urez beteriko bi ontzi zeuden, eta uretan sagarrak zituzten; eskuak atzean jarrita, burua uretan sartu eta sagarrak hartzea zen frogaren helburua. Gauza bera egin behar izan zuten kakao hautsez beteriko plater batzuekin. Beste frogetako bat imintzioka bata besteari objektuak adieraztea izan zen, eta errotulagailuak botiletan sartzen ere saiatu ziren.

Euriak beraz, ez zuen haurren ongi pasatzeko gogoa zapuzterik izan atzokoan.



Bikoteka burutu zituzten jolasak. I. URKIZU

→ Laburrak

'Vamos que nos vamos' txotxongilo emanaldia

KULTURA › Datorren ostiralean, uztailak 22, Taller de Pepe Otal antzerki taldeak ikuskizuna eskainiko du Euskal Herria plazan. Iluntzeko 19:00etan hasita, txotxongiloak zirkuko benetako artista bihurtuko dira, eta hainbat pertsonaia izango dira istorioaren barruan: malabarista, munduko gizonik indartsuena, suge-sorgintzailea, funanbulista, ... Aipatzekoa da, Topic-ek antolatutako ikuskizun honetan, Euskal Herria plazako tabernariak ere lagundu dutela.

Tolosako Musika Bandak kontzertua eskainiko du

MUSIKA › Uztailaren 22an, ostiralean, Tolosako Musika bandak Gau Giroko egitarauaren barruan urtero eskaintzen duen kontzertua izango da. Gaueko 22:30etik aurrera, Lopez Mendizabal plazan garai batean herriko plazetan egiten ziren dantzak gogora ekarriko dituzte musikariek. Hainbat estilotako musika izango da entzungai, besteak beste: ABBA, The Beatles, Frank Sinatra edo Benito Lertxundi.

Emendek elkarteko banderen bedeinkatzea

KIROLA › Urteroko ohiturari jarraituz, datorren astelehenean, uztailak 25, Emendek Elkarteko batelak lortutako banderak bedeinkatuko dituzte. 11:30ean izango da bedeinkatzea San Blas basilizan, eta amaitu ondoren, elkarteko baloian lortutako banderak erakusgai jarriko dituzte. 14:15ean bazkaria egingo dute elkartean bertan, entrenatzailea eta arraunlariekin. Aipatzekoa da, denboraldi honetan Pasaiaiko San Pedro Araun Elkarteak Emendeki eskaintako laguntza eskertzeko, tolosarrek plaka bat emango dietela pasaitarrei. Bazkaria joateko izen-emate epea uztailaren 22an amaituko da.

'Sputnik 11' diskaren aurkezpen kontzertua

MUSIKA › Datorren larunbatean, uztailak 23, *Sputnik 11* diskaren aurkezpen kontzertua eskainiko dute Bonberenean. Tolosako lau musika talde gaztek Bonberenean bertan grabatu duten bilduma da. Switch, Inde kitxen, Glaukoma sound system eta Dolce Tangana taldeak izango dira oholitza gainean, 22:30etik aurrera. 8 euroko sarrerarekin batera, diska banatuko diete bertaratu.

MENDI-ALDE
Eguneko meniak eta karta
Bataioak, Jauartzak... **Jatetxea**
San Esteban auzoa. 39 • Tel.: 943 65 17 99 • 20400 TOLOSA



2009ko Santio Kros Herrikoian haurrak irteera puntuan. HITZA

XXXI. Santio Kros Herrikoian adin guztietako korrikalariak irtengo dira

Zunbeltz Elkaratek antolatzen duen lasterketa hilaren 25ean, astelehenean, izango da Villabonako kaleetan

Asier Imaz Villabona

Korrikarako gaitasuna duten herriar guztiak Villabonako XXXI. Santio Kros Herrikoian parte hartzeko aukera edukiko dute hilaren 25ean, astelehenean.

Lasterketa Zunbeltz Elkaratek antolatzen du, udalaren laguntzarekin, eta parte hartzeko nahikoa da egunean bertan izena ematea. Aurrez bere presentzia ziurtatu nahi duenak, <http://www.lasterketak.com/santio-krosa-billabona-2011> helbidean du horretarako aukera. Izen ematea doakoa da.

↓ Irteera orduak eta ibilbidea

HILAK 25, ASTELEHENA

■ **10:30ean, benjaminak.** Zunbeltz Elkaratearen ingurutik irtengo dira. Lasterketa itzuli txiki bat izango da.

■ **10:45ean, alebinak.** Zunbeltz Elkaratearen ingurutik irtengo dira. Lasterketa bi itzuli txikioko izango da.

■ **11:00etan, infantilak.** Ibilbide nagusiari itzuli bat, 2,5 kilometroko lasterketa eginaz.

■ **11:00etan, kadeteak.** Ibilbide nagusiari itzuli bat emango diote; ondorioz, 2,5 kilometroko lasterketa egingo dute.

■ **11:00etan, juniorak.** Ibilbide nagusiari bi itzuli emango dizkiote; 5 kilometroko lasterketa izango da.

■ **11:00etan, nagusiak eta beteranoak.** Ibilbide nagusiari hiru itzuli emango dizkiote guztira; 7,5 kilometroko lasterketa izango da.

Irteera puntua Zunbeltz Elkaratearen aurrean kokatu dute, eta lehenak benjaminak izango dira, 10:30ean. Antolatzaileek, kategoriarako bakoitzeko lehen gizonetako eta emakumezkoak sarituko dituzte.

Villabonako Zunbeltz Elkarateko kideek azaldu dutenez, astelehenean lasterketak irauten duen bitartean, ordu bat gutxi gorabehera, kaleak guztiz itxirik egongo dira auto, kamioi eta autobusenentzat.

Bengoetxeak Beroizekin osatuko du bikotea Azpeitiko txapelketan

Asegarcek eta Aspek bina bikote eramango dituzte saninazioetan jokatu den txapelketara

A. Imaz Leitza

Saninazioetan Oinatz Bengoetxeak Azpeitiko bidea hartu beharko du. Herriko jaien barruan jokatu den pilota txapelketa ia osaturik aurkitzen baita.

Aurreikuspenen arabera, Azpeitian lau bikote indartsu egongo dira uztailaren azken egunean hasiko den txapelketan. Alde batetik, Asegarcek bi bikote eramango ditu, eta bestetik, Aspek beste horrenbeste.

Oinatz Bengoetxea leitzarrak Beroizekin osatuko du bikotea. Azpeitiko txapelketa irabazteko aukerak dituzten arren, beste hiru bikoteak ere oso indartsuak izango dira.

Asegarceko bigarren bikotea Olaizola II.ak eta Albusuk osatuko

lukete. Aspe enpresako bi bikoteak berriz hauek izango dira Izarraitz pilotalekuan, alde batetik, Juan Martinez de Irujo-Laskurain irtengo dira kantxara, eta bestetik, Titin-Zubieta. Aspek bikoteen arteko partidak uztailaren 31n jokatu dira eta Asegarcekoenak, abuztuaren leian.

Xalaren hutsunea azpimarratzeko da. Buruz-buruko txapelketa Baionan egongo da San Inazio egunean, bertako trinkete txapelketa ospetsuan parte hartuko baitu.



Urte askotako tradizioa du Berazubiko Paleta Txapelketak. ESTI EZEIZA

Tolosa CFren Paleta Txapelketa azken txanpan sartu da

Finalerdiak gaur jokatu dira, 19:00etatik aurrera, eta finala ostiralean jokatu da

A. Imaz Tolosa

Tolosa CFren 43. Paleta Txapelketaren finalerdiak jokatu dira gaur 19:00etatik aurrera Berazubin. Lehen partida Otermin-Goitia eta Bengoa-Maizaren artekoa izango da. Ondoren, Lontxo-Nazabal eta Zabala-Aldazabalek jokatu dute bigarren finalerdia.

↓ Emaitzak

Final laurdenak

Txepe-Otero	29
Bengoa-Maiza	30
Lontxo-Nazabal	30
Balardi-Agirre	17
Ormazabal-Muñoa	19
Zabala-Aldazabal	30
Otermin-Goitia	30
Errasti-Galaraga	23

30era iristen diren bi bikoteak finala hilaren 22an, ostiralean, jokatu dute. Orain arteko partidak bezala, Berazubiko pilotalekuan izango dira azken lehiak.

Gorputz Perkusio ikastaroa antolatu dute


Asvineneak sustatzen duen ekimena abuztuaren 13an izango da, Odei Astibiaren zuzendaritzapean

A. Imaz Aduna

Asvineneak Gorputz Perkusio ikastaroa antolatu du Adunako arte eszenikoen tailerlean. Ikastaroa abuztuaren 13an izango da,

10:00etatik 14:00etara, eta bazkideek 25 euro ordaindu beharko dituzte, ez direnek 30. Izena asvine-neaskola@gmail.com helbidean eman daiteke.

Irakaslea Odei Astibia izango da, Zozongo batukada taldeko zuzendaria. Ikastaroan hainbat soinuzko mugimendua eta gorputz perkusioa lantzeko asmoz. Honela, koordinazioa eta zehaztasun erriemikoa hedatzea izango dute helburu, lehen mailako ikastaro honetan.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Villabonako Santio jaiei jarraipen berezia egingo diegu gure webgunean

Informazioa, argazkiak, bideoak, ... jarriko ditugu; herriarrek ateratako argazkiak ere nahi ditugu

E. Maiz Villabona

Igandean, hilaren 24ean, emango diete hasiera Villabonako Santio Jaiei. Eguerdiko 12:00etan leher-tuko da suziria eta astebate iraungo du festak Villabonako kaleetan. Hala ere, osteguna atsedenerako eguna izango dute. Aurten txupinazioa jaurtitzeko Etixerat Elkarteko kideak izango dira. **TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK** jarraipen berezia egingo die Santio jai hauei www.villabona-aiztondo.hitza.info webgunean. Bertan, Villabonako Santio Jaiek 2011 atala ikusiko duzue, eta nahikoa izango da klik egitea.

Webgunea, jaietako informazioarekin, argazkiekin eta bideoekin elikatuko dugu. Horretarako ordea, herriarrek laguntza ere eskertuko genuke. Kalean, ekitaldi ezberdinetan, egunez, gauzez, ... aterako argazkiak gure helbidera bidaliz gero, guk, gure web orrian zintzilikatuko ditugu guztiok ikusteko moduan jarri.

Jaietan ateratako argazkiak, thargazkiak@hitza.info helbidera bidali beharko dira. Animatu zure argazkiak bidaltzera.

Erromeria Egunean euskararen aldeko topa egingo dute, Porrotxekin

'Maita nazazu gutxiago, goza nazazu gehiago' lemapean ospatuko dute aurtengo Erromeria eguna

Eneritz Maiz Villabona

Garagardo azoka atzean utzita, Santio Jaiek noiz iritsiko zain egongo dira billabonatarrek. Jaien artean, Erromeria Eguna ospatuko dute, hilaren 30ean, larunbatean. Oinkari dantza taldeak urtero bezala, herriko elkarte gastronomikoen laguntzarekin antolatzen du. Aurten, *Maita nazazu gutxiago, goza nazazu gehiago* lelopean antolatuko dute.

Lehen Euskal Jaia zena, orain Erromeria Eguna bezala antolatzen dute. Hainbat ekitaldi izango dira Errebote plazan. 17:30ean hasiko dira Lizartzako Isk&bila txarangarekin kalejira eginez.

Ondoren, 18:00etan sagardo eta pintxo dastaketa egingo dute plazan bertan. Honako sagardotegietako sagardoak edateko aukera izango da: Aburuza (Aduna); Barkaiztegi (Martutene); Calonge (Igeldo); Goikoetxea (Lizartza); Mina (Astigarraga); Sarasola (Asteasu); Urdaira (Usurbil); Zabala (Aduna); Zapiain (Astigarraga) eta Zelaia (Hernani).

Erromeriarri hasiera 18:30ean



02:00etatik aurrera Imuntzo eta Beloki izango dira. HITZA

emango zaio Agurtzane eta Ion Elustondorekin. 19:30ean, euskararen aldeko topa egingo dute billabonatarrek, eta horretarako Porrotx pailazoaren laguntza izango dute.

Afaritarako txartelak salgai

21:00etan egingo dute afari herrikoia. Bildotsa burruntzian erreta jateko aukera izango da, eta afari-ara joateko alde aurretik txartela erosi behar da. Ohiko lekuetan jarririk dituzte txartelak salgai, eta 25

euro ordaindu beharko da. Isk&bila txarangak alaituko du afaria.

22:30ean, bertso saioa izango da: Amaia Agirre, Amets Arzallus, Andoni Egaña, Iker Zubeldia, Maialen Lujanbio eta Sebastian Lizaso bertsolariak izango dira. Gai jartzaila lanetan berriz, Alaitz Sarasola ariko da. 00:00etan Arrabots taldearekin erromeria hasiera emango diote, eta jarraitzeko, Imuntzo eta Beloki izango dira.

↓ Erromeria Eguna

UZTAILAK 30, LARUNBATA

- **17:30.** Kalejira izango da Lizartzako Isk&bila txarangaren eskutik.
- **18:00.** Sagardo eta pintxo dastaketa egingo dute, hamar sagardotegi ezberdinetako sagardoekin.
- **18:30.** Erromeria izango da Agurtzane eta Ion Elustondorekin.
- **19:30.** Euskararen aldeko topa Porrotx pailazoaren eskutik izango da.
- **19:45.** Erromeria Agurtzane eta Ion Elustondorekin.

- **21:00.** Afari herrikoia egingo dute Errebote plazan, eta bildotsa burruntzian izango da. Giroa Isk&bila txarangak alaituko du.
- **22:30.** Bertso saioa: Amaia Agirre, Amets Arzallus, Andoni Egaña, Iker Zubeldia, Maialen Lujanbio eta Sebastian Lizaso bertsolariak izango dira taula gainean. Gai jartzaila, Alaitz Sarasola izango da.
- **00:00.** Arrabots taldearen eskutik izango da erromeria.
- **02:00.** Imuntzo eta Belokik emango diote jarraipena erromeriarri.

Eresargi abesbatzak Santio Egunez eskainiko du bere emanaldia

Kontzertua 22:30ean izango da Gurea zineman; meza nagusian ere abestuko dute

E. Maiz Villabona

Iaz herriko jaiei hasiera ematen dien txupinazioa botatzeko ohorea izan zuten Eresargi abesbatzako kideek. Abesbatzak 25 urte bete zituen iaz. Urtero moduan, aurtengoa ere, herriko jaietan ez dute hutsik egingo. Santio Egunean, hilaren 25ean, Eresargi abesbatzak ohiko kontzertua eskainiko du 22:30ean Gurea zineman.

Kontzertuan era askotako obrak jorratuko dituzte, estilo aldatuta nabarmenekin. Dibertigarria eta entzuteko erraza izango da, eta bi zatitan banatuko dute. Lehenengo zatian jatorri ezberdineko folklore obrak kantatuko dituzte: *Alla en mi Cuba*, *El breve espacio en que no estás*, edo *Loriak Udán*. Bigarren zatian berriz, Zartzuelako obra batzuk abestuko dituzte. Ana Iparragirre ariko da pianoan, eta hainbat taldekidek bakarlarri lanak egingo dituzte.

Kontzertuaz gain, Santio Eguneko 12:00etako meza nagusian ere, Eresargi abesbatzak kantatuko du.



Kontzertua iragartzeko kartela. HITZA

Euskal Herriko ekoizlea zara? Bertan sortutako edo ekoiztako produktuak saltzen dituzu?

Hemen duzue zure produktuak saltzeko tokia! 902-82 05 07

plaza@euskalherrikoplaza.com

Euskal Herriko produktuak, ekoizlearen bitartekari zure etxera

www.euskalherrikoPLAZA.com

Jarraitu Villabonako jaiak villabona-aiztondo.hitza.info webguneko Villabonako Santio Jaiek 2011 atalean. Egitaraua, ekitaldietako argazkiak, bideoak...

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza



Ekiatldiz betetako egun pasa egingo dute Leaburu-Txaramakoek Larresoroko bisitan. I. AZPILIKUETA

Leaburuko eta Txaramako herritarrak Larresoroko lagunekin elkartuko dira

Igandean Leaburu-Txaramakoak Lapurdira joango dira; izena eman nahi dutenek gaur dute azken eguna

M. Ugartemendia Leaburu-Txarama

Leaburu-Txaramako herritarrak Larresorora joango dira asteburu honetan, beraien lagunak bisitatzera.

Apirilean Larresoroko lagunak etorri ziren Leaburu-Txaramara, eta orain urtero bezala hemengoak joango dira Lapurdira. Antolatzailerik dioten bezala, «gure herrien arteko harremana sakontzea» joango dira bertara.

Urtero egin ohi duten bezala, aurten ere autobusa antolatuko dute Leaburutik eta Txaramatik joan nahi duten herritarrentzat; 10:00etan Txaramatik abiatuko dira eta 10:15ean Leaburuko arbo-

lako geltokian jasoko dituzte Leaburutik doazenak.

Larresorora joan nahi dutenek gaur dute izena emateko azken eguna, eta horretarako 620 77 86 18 telefonora deitu beharko dute.

Egun guztian zehar ospatuko dute bi herrien arteko adiskidetasuna. Goizean zintzur bustitze, toka txapelketa eta herri-kirol jaialdia izango dira. Aimar Irigoien harri-jasotzailea eta Angel

Arrospeide, Leaburuko aizkolaria, bertan izango dira.

Ondoren bazkaldu egingo dute. Bazkaria 20 euro kostako da eta menua honakoa izango da: meloia eta xingarra, paella, entsalada, ardi gazta, udare tarta, kafea eta ondokoa.

Ondoren, musikarekin, bertolariekin eta erromeriarekin alaituta emango diote amaiera egunari.

↓ Larresoroko bisita

UZTAILAK 24, IGANDEA

- **10:00.** Txaramatik abiatuko da autobusa.
- **10:15.** Leaburun geldituko da autobusa (arbolako geltokian).
- **12:30.** Zintzur bustitzea eta toka txapelketa. Ondoren, herri-kirolak: Aimar Irigoien harri-jasotzailearen eta Angel

Arrospeide aizkolariaren erakustaldia.

- **13:30.** Bazkaria.
- **18:00.** Zozketa eta erromeria.
- **Egunean zehar.** Debrutegiko kantari eta musikariarikoa izango dira, eta baita bertsolari gazteak ere: Mitzel Mateo, Txomin Elosegi eta Mattin Luku.

Urarekin gozatzeko aukera izango da igerilekuan

Ur-festa ostiral honetan izango da Leitzan; 22:00etan hasiko da eta 2 euro kostako da

M. Ugartemendia Leitzan

Egun hauetan euriz bustitako egunak izan ditugu, eta ostiralean urez bustitako festa izango da Leitzako igerilekuan. *Gozamenez beteriko gaua, ur-festa* antolatu dute Leitzako kiroldegia, Gizar-te Zerbitzuen Mankomunitateak, Leitzako Udalak eta Gozamenez Koordinadorak.

Esan bezala, festa ostiral honetan izango da, 22:00etan. Sarrera 2 euro kostako da, eta mota guztietako ekitaldiak izango dira.

Alde batetik, bainuak eta jolasak izango dira. Bestetik mota guztietako musikaz ere gozatu ahal izango da: txalaparta, trikitilariak, Ukatu musika taldea...

Dantza ere ez da faltako, izan ere, Amazabal Etxeko andreak, aerobikeko dantza saioa eskainiko du.

Guzti horrez gain alkoholik gabeko maitasun edabeak eta sorpresa gehiago ere egongo dira. Antolatzailerik «gau liluragarria» bizi nahi duten guztiak gonbidatu dituzte festan parte hartzera.



Festan ez dira musika, dantza eta edariak faltako. N. URBIZU

→ Laburrak

Festa Batzordearen bilera izango da bihar

IBARRA › Bihar, hilaren 21an, 19:30ean Udaletxeko Batzar Aretoan, Festa Batzordearen bilkura egingo da. Bertan San Bartolome jaien antolaketa-kin jarraitzeko asmoz bilduko dira. Herritar guztiei bertan parte hartzeko gonbita luzatu diete Festa Batzordekoek.

Argazkilaritza tailerra gaztelekuan

VILLABONA › Gaztelekuan argazkilaritza tailerra antolatu dute. Profesional baten eskutik, estudioko argazkiak ateratzen ikasteko lehen pausuak emateko aukera izango dute ikastaroa joaten diren gazteek. Bi orduko iraupena izango duen ikastaroa gaur bertan izango da, 16:00etan, gaztelekuan. 9 euro kostako da, eta ikastaroan parte hartu nahi dutenek bertan eman beharko dute izena.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

Alkateen elkarrizketak →

Iñigo Aierza ◊ Berrobiko alkatea

«Udala oso egoera ekonomiko txarrean egoteak mugatu egiten gaitu»**Maier Ugartemendia** Berrobi

Iñigo Aierza (Berrobi, 1966) pixkana ari da alkate karguak ekartzen dituen eginbeharrak ezagutzen. 12 urteren ondoren udalean aldaketa egongo da, Bildu koalizioak irabazi baitzituen hauteskundeak. Bera alkatea den arren udalean daudenak talde bat direla eta guztiak batera egingo dutela lana dio; eta horretan ari dira. Udala «oso egoera ekonomiko txarrean» aurkitu dutenez, hurrengo urteetako proiektuak gauzatzeko nahi-ko «mugatuta» daude.

Dagoeneko aste batzuk daramatzazue udalean sartuta. Zer moduz hasi zarete lan berrian?

Beste lagunekin oso ondo. Ahal den bezala moldatzen gara. Taldeak lanerako gogoia dauka, eta hori garrantzitsua da.

Nolatan animatu zinen?

Lehen herrian talde bakarra ze-

goen, eta Bilduren izenean beste talde bat ateratzeko asmoan hasi ginen. Aurreko taldeak 12 urte zerramatzan alkatetzan, eta gauzak denen gustura egitea ezinezkoa da. Bilduk ez zuen inor aurkitzen, eta ni prest nengoen alkate jartzeko, beti ere talde lanean aritzekoan. Horregatik, batzordea eta taldeka lan egiteko asmoa dugu.

Zeintzuk izango dira zuen hurrengo lau urteetako asmoak edo proiektuak?

Lehenengo gauza egoera ekonomiko oso ondo aztertzea izango da. Oso egoera txarrean dago udala eta horrek asko mugatzen gaitu. Baina, egin beharreko proiektua, plazatik gorako etxeetara joan ahal izateko espaloia egitea ikusten dugu, hori da beharrezkoena. Bestalde, kultur arloan ekitaldiak edo gauza desberdinak egiten saiatuko gara; lokalak badauzkagu, eta orain arte egin ez

diren gauzak egiten saiatuko gara. Herrigintzan ez dago gauza handirik, egoera ekonomiko horrekin oso mugatuta gaude.

Herritarren parte hartzea bultzatuko duzue?

Gure asmoa herria udaletxean sartzeta da. Eskatzen dituzten beharren arabera egin nahi dugu lan, eta herrian ikusten diren beharrak konpondu nahi ditugu.

Eta parte hartzea batzordeen bidez bultzatuko duzue?

Orain arte asko egin ez den auzolana egin genuen aurreko larunbatean; bide batzuk garbitu genituen. Eta horrelako gauzak bultzatu nahi ditugu.

Agian, herriari bizia emango dioten gauza txikiak egin ezta?

Bai, baina beti ere herrian parte hartzea bultzatuz. Herriaren beharrak aztertu nahi ditugu, zer dagoen ondo eta zer dagoen gaizki denon artean ikusi. Jende guz-



M. UGARTEMENDIA

tiarekin hitz egin nahi dugu. Udala izan arren, saiatuko gara parte hori benetan gauzatzen.

Aipatu dituzun kultur jarduerak ere bide horretatik bultzatu nahi dituzu, ezta?

Bai. Adibidez, orain dela gutxi bertso bazkari bat antolatu zuten, eta ikusi zen arrakasta handia izan zuela. Bada arlo horretan, estilo horretako gauza gehiago bultzatu nahi ditugu.

Esan duzun bezala, aurreko taldeak hamabi urte egin zituen udalean, eta talde berri bat sartzeta herriarentzat ere aldaketa handi bat izango da. Nik uste aldaketa handia izango

dela. Lehen herria bitan nahiko zatituta zegoen, gure asmoa herriak bat egitea da. Nahiz eta gu bezala ez pentsatu, jendea gurekin lanera etortzea gonbidatzen dugu. Lan egin nahi duenak hemen lekua izango du.

Beste zer bait gehitu nahi al duzu?

Beharrak herri guztietan bezala badaude, baina, egoera ekonomikoak asko mugatzen gaitu. Hori dela eta, lehengoan egin genuen lehenengo plenoan erabaki genuen ezer ez kobratzea; gastuak betekiko ditugu, baina ez dugu soldatarik kobratuko. Gu gara erdia eman behar dugun lehenak.

Izaskun Kerexeta ◊ Elduaingo alkatea

«Batzarrean, aurretik herriak erabaki duena ematen da aurrera»**M. Ugartemendia** Elduain

Alderdien legea dela eta gora behera ezberdinak izan dituzte Elduain azken zortzi urteetan, orain herritarrez osatutako zerrenda aurkeztu zuen Bilduk eta alkatetzara ere eskuratu du. Izaskun Kerexeta (Elduain, 1968) izango da alkatea datozen lau urteetan, eta «gogotsu» dagoela adierazi du. Jada talde lanean ari dira, martxan jarri daitezkeen proiektuak aztertzen.

Nolatan erabaki zenuen alkate aurkeztea?

Halaberharrez. Herri txiki honean jendea bilatzea arazo izan da. Bileretan ibili ginen, eta ez ze-

goen aukera handirik. Azkenean, lanerako gogoia zegoen eta aurkeztea pentsatu nuen.

Gainera, zerrendako herritarren artean bozkatuena izan zinen.

Bai, ni zerrendan laugarren nioan, baina zerrenda bozkatu beharrean pertsona bozkatzen da, eta botoen arabera ni atera nintzen lehenengoa. Hala ere, denak elkarrekin aritzen gara lanean, talde lanean. Denak batera ari gara lanean, eta ahal denarekin denak lana egiteko gogoarekin gaude.

Zer moduz hartu duzu martxa?

Indartsu eta gogotsu. Astero bilteza pentsatu dugu eta plenoak hilean behin egingo ditugu. Martxa hartu arte hor mantenduko



M. UGARTEMENDIA

dugu, eta gero beharren arabera egokituko dugu.

Udala batzorde batekin aritu da lanean, zer egoeratan aurkitu duzue?

Ondo, aurrekoak lanean ari ziren. Beraiek udala altxa dute, eta gu hor mantentzen saiatuko gara. Herri txiki hauetan diruaren aralana egiteko gogoarekin gaude.

Zer proiektu izango dituzue datozen urteetan?

Esan bezala, diru urri horren araberako izango da. Ur hornidura

eta argiarena ikusten dugu zaharkituena. Diruaren arabera, horri heltzen saiatuko gara. Baina, lasai-lasai. Oraindik egokitzaren ari gara. Lehengo udal ordezkariak ere asko laguntzen digute eta ez gaude bakarrik; eta, herriaren babesa ere hor dago. Beraz, zerbait egingo dugu.

Batzordeen bidez egingo duzue lan?

Hemen bilera bat deitzen da normalean, eta bertan egoten den jendearekin bilera egin ondoren, hurrengo astean batzarra egiten

da. Batzarrean, aurretik herriak onartu duena, hura ematen da aurrera. Aurreko batzarrak horrela egiten zuen lan eta guk ere horrela jarraituko dugu. Festak, esate baterako, gu sartzetako antolatzen hasita zeuden, eta orain jarraitzea besterik ez da gelditzen.

Azken urteetan herrian bizi izan den egoera nola bizi izan duzue?

Ziurrenik beste egoera bat bizi izan bagenu ni ez nintzen hemen egongo. Aurretik jendea prest zegoen sartzeko, baina lege aldetik ez zaituzte hor egoten. Hala gertatu da, guk beraien babesa badaukagu, eta denon artean egingo dugu.

Ostatua ere zabaldu da duela gutxi, horrek herriari bizia emango zion?

Bai, gainera, jende asko dabil eta jendea etortzera gonbidatzen dut. Oso ondo ematen dute jaten. Apartakalea badago, eta ez ikaratu errepide iskinean dagoelako. Han apartakatu zuzenean hona etortzen da bidea, eta parkea ere badago umeentzat. Toki egokia iruditzen zait bazkaltzera etortzeko. Oso gustura gaude, eta ea urte askotan irauten duen. Ostatura itxita tristea da, badaukagu elkartea moduko bat, orduan ez da taberna gabe geratzen herria, baina ez da berdina, beste bizi bat ematen du.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:
Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezketza, Anoeta, Areso, Baliarrain,
Belauntza, Berastegi, Elduain, Herrialde, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agurrak



Urte askoan!

Gure Luar pottokitok 3 urte bete ditu. Zorionak maittia eta segi beti bezain jator eta alai. Muxuak. Etxekoak.

AGURRAK
943-65 56 95
tolosaldean@hitza.info

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

●●● **agurrak**

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Olarreaga, I. Korreo kalea, 2. 943 67 01 28.
- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia. 112.
- **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

Irudia Tolosa



LEIDORREKO ESERLEKUAK, HUESCAN

Leidor antzokia berritzerakoan, eserlekuak era aldatu zituzten, baina besaulki gorri horiek aurkitu dute beste egitekorik, Abizandako Txotxongiloen Etxean, Huescan, baitaude. Txotxongiloen txoko hau Binefarreko Titiritero taldekoek sortu zuten,

oraintxe Topic zentroan erakusketak daukan konpainia berak. Abizandako gune hau egiteko bi etxetzar berritu zituzten eta bertan, erakusketak, tailerrak, eta emanaldiak antolatzen dituzte, besteak beste. HITZA

Agenda

DEIALDIAK

- **Leitza.** Atekabeltz gaztetxearen 6. urteurrena dela eta, gaur 20:00etan parrillada egingo dute gaztetxean bertan.
- **Leaburu-Txarama.** Urtero bezala hilaren 24an Larresorora joango dira Leaburu-Txarama-ko herritarrek. 10:00etan irten-go dira. Irteeran parte harzeko deitu 620 77 86 18 telefono zenbakira. Gaur da izena emateko azken eguna.
- **Tolosa.** Minbiziaren Aurkako Elkartek *Ez utzi eguzkiak zure perfileko argazkia aldatu dezan* kanpainaren barruan melanina frogak egingo ditu gaur, 10:30etik 13:30era Usabal kiroldegiko igerilekuan.
- **Berastegi.** Abuztuaren 5eko herri afarirako txartelak eskuratu daitezke jada, Urepele eta Basurde elkarteetan, zein Zelai tabernan. 12 urtetik beherakoek 9 euro ordaindu beharko dute, eta gainontzekoek 17 euro.

ERAKUSKETAK

- **Tolosa.** Menchu Gal margolariaren erakusketak inauguratuko dute Aranburu jauregian gaur 19:30ean. Irailaren 10a bitarte ikusi ahal izango dira margolanak, *Kolorearen poza* izenburupean.
- **Tolosa.** Binefarreko titiriteroaren erakusketak Topic-en urriaren 2a bitarte. Irailak 30 arte udako ordutegian bisitatu ahal izango da, hau da: lanegunetan 11:00etatik 14:00etara, eta 16:00etatik 20:00etara; eta asteburuetan 11:00etatik 14:00etara, eta 16:00etatik 21:00etara.
- **Larraul.** Hainbat pisu eta balantza biltzen dituen erakusketak ikusi daitezke Ekomuseoan, iraila arte.



TOLOSA MOTOR, S.A.
PEUGEOT KONZESIONARIOA
San Esteban auzoa, 14-A • 20400 TOLOSA

Tel.: 943 650 337 / Faxa: 943 652 938
tolosa@tolosa.redpeugeot.com

P-508 SW
BERRIA

